



BARREN
TOKIKOM

Ahanturatik memoriara



MOZORRO TAILERRA FAMILIAN

10:00-13:00

ATXUTXIAMAIAKAKO
LOKALEAN
(Merkatu plazako 2. solairuan)



Otsailak 18,
Zapatua

HH2-LH3 bitarteko
ume eta familientzat



KIRIBIL

Antolatzaileak:



ATXUTXIAMAIA



ELKARRIKO IDIA

elgoibar

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Abundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA GARA

Ikuntza Politikako Sailburuordea



ANA ALBERDI



“Komertzio txikiak eskaintza bereziak egitera bultzatzeak ez al du prekarietatea bultzatzen?”

Bagaude. Merkealdian bagaude, eta izango gara. Las-terketa baten hasiera balitz bezala jokatzen dugu merkealdian, hain gustuko izan dugun jantzi horren bila, “txolloaren” atzetik... Eta izango gara diot, etorkizunean fenomeno berri baten biktima izango garelako; jada merkealdia ez da urtarrila eta uztailean bakarrik izango, hemendik aurrera, dendek nahi duten momentuan eskegiko dutelako “merkealdia” dioen kartela. Duela pare bat hilabetetako berria izan zen medioetan, eta berreskuratzea nahi izan dut, izan ere, kontsumitzailearentzat printzipioz notizia ona dena, ona ote al da sektorearen zati xumearentzat, eta ondorioz, gizartearentzat?

Ez. Erantzuna ez da. Gure norberekoikeriaren parte da neurri hau notizi on gisa hartzea, baina, adi, oker gabilta. Multinazional handiek ez dute merkealdirik behar salmentak

handitzeko (galdetu bestela, Amancio Ortega Inditex taldeko zuzendariari) eta era berean, dituzten prezio lehiakorrek zaildu egiten dute komertzio txikiaren jarduna. Beraz, komertzio txikiak eskaintza bereziak egitera bultzatze horrek, ez al du bada, horien prekarietatea bultzatzen, irabaziak gutxitzen, eta ondorioz, langile xume eta ekintzaileen pobrezia areagotzen? Ez al du neurri honek, kapitalismoaren indarra handitzen? Eta hasieran esan dudan bezala, merkealdian bizitzeko sententzia izateak ez al du eroslearen kontrol eza eragingo? Ez al ditu erosle konpulsiboak sortuko?

Tamalez, beste behin, enpresa handi eta dirudunak lasterketa abiarazteko pistola-tiroaren jabe dira, eta bitartean, langile xumeak, baita gu geu ere, herritarrak, beraien sistema kapitalistaren txotxongilo.



ENEKO ITURBE



“Uste duzu hemendik aurrera gai izango ginatekeela hainbeste pagotxi muzin egin eta sistema honi aurre egiteko?”

Bai, Ana, halaxe da! Aste honetan zehar hainbeste gustatzen zaizkidan dendetan ibili naiz, duela hilabete lokalizatu nuen txaketa eder baten atzetik, eta badakizu zer? Lortu dudala! Horretaz gain, *low cost* deritzen hainbat dendatan ere izan nintzen, baita nik diseinatzen dudan horretan ere, eta, egia esan, zabortege bat ziruditen... Hori zen hori nahaspila! Nik nahiago izaten dut merkealdian arropa pare bat erosi, hamar kapritxo eskas baino; izan ere, horrelakoetan erosten diren jantziak azkenean bi aldiz jartzeko besterik ez dira izaten!

Gaur egun, urteko 10-12 kolekzio egiten dituzte enpresa handiek, denboraldiak lau zatitan banatuz. Hori dela medio, udaberri eta udazken hasieran ere aldaketa handia antzematen da dendotan. Kolekzio berriak sartuz, enpresa handi hauek lortzen dutena da tendentzia potenteenak ahalik eta azkarren merkaturatzea, baina badu bere alde negatiborik ere: dandan denbora daramaten arropa horiek oso zaharkituak geratzen dira. Zer, egin, beraz, azkenengo jantzi hauekin? Ba, noski, merkealdian saldu,

horixe baita arropa hauei irteera emateko biderik onena!

Aitortu beharra dago: enpresa hauek oso marjen handiak izaten dituzte beraien prezio eta salmentetan. Esate baterako, %50ean salduriko kolekzioen irabaziak ere itzelak izaten dira, sinistu ezazu! Agian, komertzio txikiak bide hau jarraitu beharko lukete, beraien ere produktuari irteera eta sarrera azkarrago bat emateko, baina, zuk oso ondo azaldu duzun bezalaxe, kapitalismoaren funtsa da hau. Hala eta guztiz, ez nago oso ziur estrategia hau jarraituz benetan irabaziak izango litzuketean edo ez...

Modaren alde zatar hauek alde batera utzita, noski polita, kreatiboa, berezia eta dibertigarria dela, bai horixe! Are gehiago, esango nuke ilusio batzuetan faltsua ere sortzen duela modak... Baina argi dagoena da sistema guzti honek atzean funts eta erro bat eta bakarra duela: dirua! Zuk uste duzu hemendik aurrera gai izango ginatekeela hainbeste pagotxi muzin egin eta sistema honi aurre egiteko? Begiek dir-dir egitea lortu duen mauka hori alde batera uzteko? Egia esan... ez dut uste, lagun!



IÑAKI ODRIOZOLA

Elgoibar 1936 taldekoa

“Bukatu dira isiltasunaren eta iluntasunaren garaiak”

27 hilketak eramateko iladan jarri gaituzte protokoloaren antolatzaileek, eta Euskadiko lehendakariaren zain gaude. Senideak batzuek, orotzapenaren aldeko militanteak besteak, bai eta zenbait herrietako alkate eta zinegotzi ere.

Felix, azken urteetan gai honetan ere gure akulua izan dena, nekatzen hasi da. Felixen gerriak, bihotzak lez, 90 urte ditu. Hark ikusi zuen, 10 urte zituela, Amestigainen hildakoa. Erdi lurperatua zegoen Azkaratera Upaitzatik zeraman bidezidor zaharrea, bazterrean, azal-azalean. Txakurrek hortzaka egin zioten, eta eskua, esku hotza, urdina, odoldua, bistan utzi. 80 urte geroago, han dago oraindik.

Aizarnako milizianoa zen, ziurrenik. Askatasuna helburu, Azkarate gaina defendatzen aritu zen, eta bere bizitzarekin

ordaindu, 1936ko irailaren 20an, faxistek gure herria hartu baino egun bat lehenago. Emaztea, alarguna, urteetan joan izan zitzaion lorak eramatera, erdi ezkutuan. Hura ez zen, ez, bere maitiaz ahaztu. Felix ere ez. la beste guztiak bai.

Biolontxelo sumatu duenean jaiki da Felix, gogor berriro. Hodei eta hiru-rok zerraldia hartu dugu, eta hilobira eramana, poliki-poliki, sakoneko musikak, haizetan, inguratzen zuela. Halako zirrara batek eztarria estutzen zigula konturatu gara: azkenean, dagokien tokian jarri ditugu, merezitako tokian, izenik gabe, baina errekonozimendu osoz, justiziarik gabe, baina erreparazioz.

Lehendakariak onartu du urte askoan instituzioek nagiki jokatu dutela, eta horregatik gai honi behar bezala heltzeko konpromisoa berretsi du, Zirrardamendin egin zuen bezala. “Bukatu dira isiltasunaren eta iluntasunaren garaiak” esan du. Egin dadila argia!

“Azkenean dagokien tokian jarriko ditugu, merezitako tokian”

27 gorpuzkin. 25 identifikatu gabeak. 2017. urtea da, baina gure herrietako mendi eta inguruak lurperatuz beteta dauzkagu. Arrasaten, Andoainen, Azkoitian, Elgetan, Elgoibarren, Legutian, Lemoan, Mañarian, Mutrikun, Gaubean, Zaldibian eta Zigoitian ateratakoak dira hezurdura hauek. Beste asko daude desagertuak. Euskadin 8.000 inguru, Nafarroan 3.500, eta Estatuan 130.000. Izugarria.

Ordulaurden daramagu tente Olasoko hilerrian, ahaztuak izan zirenen gorpuzkinak jasotzeko balioko duen txokoa; gizarretik, eta giza izatetik erauziak izan zirenei eskainitako leku txukun honetan; duintasuna berreskuratzeko, behingoz, eraikitako espazioan.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantziak. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldgi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► GURASO SEK DEITUTA, OTSAILAREN 19AN, MANIFESTAZIOA

Astelehean jakin genuen EAEko Auzitegi Nagusiak GuraSO Sek hondakinen inguruan aurkeztutako helegitea alboratu duela. Berehala, premiazko eta urgentziatzeko agerraldia egin zuen GuraSO Sek, eta gogorarazi zuen hondakinen kudeaketan azken hitza ez dutela izango auzitegiek, gizartea izango dela erabakiko duena. Horregatik, manifestaziora deitu du otsailaren 19rako (igandea), 12:00etan, Donostiako Artzai Onaren paretik *Elkarrekin gehiago gara. Adostasuna, besterik ez. Akordioa konponbidea* lemapean.

GuraSO Sek lege ekimena martxan jarri du dagoeneko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2017rako foru aurrekontuen araudiko zortzigarren xedapen gehigarriaren aurka. Xedapen honek 2002-2016 urte artean izan dugun GHHKPO-ren indarraldia luzatzea ahalbidez du, bertan aurreikusiak dauden azpiegiturak egikaritu artean behintzat. Aldundiak bazekien erraustegiaren lanen kontratazioa justifikazio legalik gabe geratuko zela, eta bere indarraldia luzatzea erabaki dute, aurrekontuetako xedapen gehigarri baten bidez. Aurreikuspen hori tramitaziorik eta legediak derrigortzen duen parte-hartze prozesurik gabe egin da, aurreko plana ebaluatu gabe (Lege diak derrigortzen duen arren), egungo hondakinen egoera aztertu gabe (2007az geroztik ez da aztertu).

GuraSO Sek irtenbideak, akordioan, legearen errespetuan eta parte-hartze demokratikoan oinarritu behar duela uste duten herritar guztiak deitu ditu manifestatzerara. Baita gatazka, inposizioa eta herritarrei hitza ukatzea hondakinen kudeaketarekin dugun arazoa konpontzeko bidea ez dela uste dutenak ere: "Erabakitzeke unea da. Gatazka

gehiago, zatiketa gehiago, inposizio gehiago edo Gipuzkoa gehiago, kohesio handiagoa eta gatazkarik ez. Gizartearen ordua da, kalera irteteko ordua eta erabakitzekeoa. Asko dago jokoan, zuk erabaki".

GuraSO Sek mahai gainean gai honen konponbiderako aurkeztua duen bide-orriaren alde egin du beste behin. Lege diak derrigortu bezala, egungo egoera legeztatzea eskatzen dute, herritarrei parte hartzeko aukera eskaintzea, eztabaida tekniko eta soziala sustatzea, Europako aholkuak betearaztea eta irtenbide adostu bat ematea hondakinen kudeaketaren arazoari.

Ni banao otsailaren 19an. Eta zu?

A.I.Z

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEK edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehenez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birakoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datoren eskutitz argitaratuko.

Zoru klausulen inguruko hitzaldi informatiboa antolatu du Kaleratzeak Stop elkarteak Eibarren, otsailaren 9rako

Europako Justizia Auzitegiak erabaki zuenetik bankuek abusuzko zoru klausulen bidez gehiegi kobratu-tako diru gutzia itzuli behar zietela bezeroei, zoru klausulen gaineko auziak eman du zeresana. Eta hain justu ere, gai horri helduko dio Kaleratzeak Stop elkarteak, otsailaren 9an, Eibarren, Portalean, emango duen hitzaldi informatiboan (19:00). Zoru klausulak zer diren azalduko dute. Interes tasen jaitziera saihesteko bankuek euren hipoteka kontratuetan jartzen dituzten gutxieneko interesak dira zoru klausulak. Euriborra aplikatutako zorua baino apalago egon denean, bezeroei ez die inolako mesederik egin, bankuek ezarritako minimoa



ordaindu ahal izan dutelako orain arte. Hortik gorakoa izan denean, baina, haren arabera pagatu behar izan dute bezeroek.

Zoru klausulen auzian agintariak, gure ordezkari politikoeak, jokatu duten papera aztertuko dute, eta gehiegizko klausulak

ordaindu dituztenek diru hori kobratzeko eman beharreko pausoak ere aztertuko dituzte. Era berean, ohartarazpen batzuk ere egingo dituzte, ikusi dutelako auzi honetan ere badirela bezeroen ezjakintasunaz baliatuz iruzurra egiteko ahaleginean ari direnak.

Bi lagun zauritu ziren astelehenean Sigman izandako errepide istripuan



634 errepidean gertatu zen istripua, 7:40ak aldera. Eibarko noranzkoan zihoan Volkswagen Kalifornia furgoneta atzeko aldean jo zuen kontrako norabidean zihoan beste auto batek eta errepidetik irten eta industriguneko bidera jausi zen furgoneta. Bi gidariak zauritu ziren, eta Mendaroko Ospitalera eraman zituzten biak.

Eguneko zentrokoei eman die Arno Guraso Elkarteak otarra

Eguberrien bueltan zozketatu zuten otarra Mendaroko Eguneko zentrokoei eman die Arno Guraso Elkarteak, zehaztutako epean sariduna agertu ez dela ikusita. Asteazkenean eraman zuten guraso elkarteko ordezkariak otarra, eta ordukoa da argazki hau.



'Bizikidetza berriaren erronkak' mahai-ingurua egingo dute Elgoibarren



Bakea eta bizikidetza jardunaldien barruan, *Bizikidetza berriaren erronkak* mahai-ingurua antolatu dute eguaztenerako, hilaren 8rako. Hiru kazetarik parte hartuko dute mahai-inguruan: Gorka Landaburuk, Jurdan Arretzek eta Martin Garitanok. Mahai-ingurua musika eskolako auditorioan izango da, 19:00etatik aurrera.

Bizikidetzaren aldeko herritarren taldeak antolatu ditu jardunaldiok, Elgoibarko Udaleko alderdi guztien onespenerekin, eta lehenengo saioa asteazken honetan egin zuten. Memoria partekatzen izenburuko solasaldi horretan, Jon Sarasuak, Mireia Urangak eta Joxe Arregik parte hartu zuten.

Jaiotza mekanikoak 14.718 bisita izan ditu abenduaren 20tik urtarrilaren 17ra

Elgojaiotzako kideek jakinarazi dute 14.718 bisita izan dituela jaiotza mekanikoak, aurreko edizioan baino 1.500 ikusle gutxiago, alegia. Antolatzaileek uste dute Gabon Zahar feria egunak Urte Zahar Egunarekin bat egin izanak eragina izan duela jaiotsiera horretan, berez Gabon Zahar ferian izan ohi dituelako jaiotzak bisita gehien. Abenduaren 31n, 1.700 bisita zenbatu zituzten, eta normalean, batez beste 500 lagun inguru pasatu dira egunean jaiotza ikusgai egon den egunetan, abenduaren 20tik urtarrilaren 17ra bitartean.

Hurrango urtera begira, laguntza ere eskatu dute Elgojaiotzakoek. Lanik handiena hondatu diren piezak eta mugimendudun irudiak konpontzea izaten dela nabarmendu dute, eta horri eta bestelako lanei erantzuteko taldera jende berria gehitzea eskertuko luketela esan dute.

Txankakuaren txartel saridun batzuk ez dira agertu

Txankakua merkatarik elkartek jakinarazi du oraindik ez direla agertu Gabonetan saritutako txartel guztien jabeak. Bezeroen artean hamar sari zozketatu zituen Txankakua merkatarik elkartek: 500 euroko bi sari eta 100 euroko zortzi sari, 1.800 euro guztira, baina 100 euroko bost txartelen saridunak ez dira agertu. Honako hauek dira agertu gabe jarraitzen dutenak: 80.091 / 94.649 / 212 / 30.453 eta 85.351. Txartel sarituen sariak otsailaren 9a arteko epea dute txartelak aurkezteko.

Katueder elkarteak bilerara deitu du iganderako

Katueder elkarteak bilera antolatu du iganderako, hilaren 5erako, Elgoibarren, Derry tabernan (18:00). Kalko katuak harrapatu, esterilizatu eta berriro aske uztea proposatzen du elkarte honek; beste zenbait herritan martxan den C.E.S. prozedura Elgoibarren ere ezartzea, alegia. C.E.S. metodoan katu guztiak erroldatzen dituzte eta datu-base batean erregistratzen dituzte gero, jarraipena egiteko. Elikagaiz eta ur garbiz hornitzen dituzte egunero eta aterpe lehorrak eraikitzen dizkiete, eguraldi txarretik babesteko eta arnas infekzioak saihesteko. Harremanetarako: katueder@gmail.com / www.facebook.com/katueder.

Mozorro tailerra antolatu dute Elgoibarren

Familia hizkuntza transmisioa lantzeko, mozorro tailerra antolatu du Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaikaren Kiribilduz egitasmoak, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan. HH4-LH3 adin tarteko umeentzako eta euren gurasoentzako tailerra izango da, eta otsailaren 18rako iragarri dute. Atxutxiamaikakoek merkatu plazan duten lokalean (bigarren solairuan) eskainiko dute saioa, eta hiru ordukoa izango da, 10:00etatik 13:00etara. Saioa euskara hutsean izango da, eta interesatuek 5 euro ordaindu beharko dituzte, saioan bertan (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 4,5 euro). Plazak mugatuak dira, eta otsailaren 14a izango da izena emateko azken eguna. Izena emateko edo informazio gehiagorako nahiz harremanetarako: www.elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626 (Jon).



Instituzioetako ordezkariak zabala bildu zen Duintasunaren Kolunbarioaren inaugurazio ekitaldian. (Arg.: Jaurlaritza)

Duintasunaren Kolunbarioa, beste urrats bat memoria egiteko ahaleaginean

36ko gerran hil eta zientziak identifikatzerik izan ez duten gorpuzkinak biltzeko leku duin bat zabaldu dute Elgoibarren, Olaso hilerrian: Duintasunaren Kolunbarioa. Lurpetik eta ahaztutatik atera eta lekua egin diete memoria kolektiboan. Eusko Jaurlaritzak, Arazandi zientzia elkarteak eta memoria historikoaren aldeko elkarteek elkarrekin eman duten pauso izan da, eta hiru adarrek parte hartu zuten astelehenean, inaugurazio ekitaldian. Astelehenetik, 27 lagunengorpuzkinak daude hilobiratuta Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan. Argazkiak: www.barren.eus.

- AINARA ARGOITIA -

Ahaztutatik memoriara; iluntasunetik argitara. Memoria historikoa berreskuratzeko bidean beste pauso bat eman zen astelehenean Elgoibarren, Duintasunaren Kolunbarioa inauguratuta. 36ko gerran hildakoak gogoratzeko Olaso hilerrian atondu duten lekua da kolunbarioa; gerran hobi komunetan laga zituzten lagunengorpuzkinak –gehienak identifikatu gabeak– hilobiratu eta merezi duten aitortza egiteko lekua. Arrasaten, Andoain, Azkoitia, Elgetan, Elgoibarren (Zirardamendin), Legutio, Lemoan, Mañarian, Mutrikun, Gaubean, Zaldibian eta Zigoitian hildako 27 pertsonengorpuzkinak hobiratu zituzten bertan astelehenean. Lurpetik atera eta identifikatu ezin izan dituzten lagunengorpuzkinak dira gehienak, baina badira identifikatuta egon arren senitartekoek Elgoibarko kolunbarioan hobiratzea eskatu duten bi lagunengorpuzkinak ere: Elgetan fusilatutako Jesus Zuzua Mondragon Dragoness batailoiko miliziano arrasatearrarenak eta 1936ko irailaren 25ean Zirardamenin hildako Sabino Atutxa Olabarrirenak, Arana Goiri batailoiko gudari getxoztarrarenak.

Hil eta zortzi hamarkada geroago Elgoibarren hartuko dute atsedenenek.

Jaurlaritzaren Gogora institutuak, Aranzadik eta Elgoibarko Udalak elkarlanean antolatu zuten inaugurazio ekitaldia. Protokolo handiko ekitaldia izan zen, baina era berean, beroa eta hunkigarria ere bai momentu askotan. Halaxe, hunkituta, jarraitu zuten ekitaldia hobiratutako lagunengosenitarteko zenbaitek, tartean Bizkaia Buru Batzarreko presidentea Ixaso Atutxak, Sabino Atutxa gudari izandakoaren ilobak. Iban Garate Euskal Telebistako esatariak aurkeztu zuen ekitaldia, Kukai dantza taldekoek egin zuten ohorezko aurrekoa, eta Eusko Legebiltzarrean ordezkariak izan ziren alderdi guztietako ordezkariak batu ziren ekitaldira, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakaria buru zutela. Jaurlaritzako kargudunen artean zeuden, esate baterako, Josu Erkoreka Gobernu bozeramailea, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Jonan Fernandez Bakea eta Bizikidetzarako idazkari nagusia, Aintzane Ezenarro Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza

“Sekula
errekuperatuko
ez ditugun
guztiak daude
hemen
ordezkatuta”.

- Paco Etxeberria -

Eskubideen Institutuaren zuzendaria eta Monika Hernando Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria. Agintarien ordezkari zabalak izan zen, era berean. Hantxe zeuden, besteak beste, honako hauek: Aitor Esteban, Markel Olano, Joseba Egibar, Juan Mari Atutxa, Itxaso Atutxa, Andoni Ortuzar, Jose Antonio Ardanza eta Maialen Gurrutxaga EAJkoak, Arnaldo Otegi Sortukoa, Maddalen Iriarte eta Julen Arzuaga EH Bilduko legebiltzarkideak, Pili Zabala eta Jon Hernandez Ahal Dugu-koak, Jose Antonio Pastor PSE-EEkoak eta Carmelo Barrio PPkoa. Horiek guztiez gain, hobi komunak topatu dituzten herrietako alkate eta beste agintari batzuk eta memoria historikoaren aldeko elkarteetako ordezkariak ere baziren ekitaldian, eta jakina, baita Aranzadi zientzia elkarteko antropologoak ere, duintasuna lur azalera arduraz bereziz jardun duten taldeko ikertzaileak, alegia. Paco Etxeberria Aranzadi zientzia elkarteko zuzendariak hitz egin zuen haiek guztien izenean, eta memoria egiteko betebeharra denok dugula nabarmendu zuen: “Biktimen oroituak izateko eskubidea dute, eta guk guztiok memoria egiteko betebeharra”. Zientziak ere hutsuneak dauzkala onartu zuen Etxeberriak eta lur azalera ekarritako gorpu guztiak ezin izan direla eta ezingo direla identifikatu, baina Elgoibarko kolonbarioak haiek guztiei ohore egin eta haiek denak akorduan izateko balioko duela nabarmendu zuen: “Sekula errekuperatuko ez ditugun guztiak daude hemen ordezkatuta”.

Elgoibarrek ere ordezkari zabalak izan zuen inaugurazio ekitaldian: Elgoibarko Udaleko agintariak, Elgoibar 1936 taldekoak eta Bizikidetzaren aldeko Elgoibarko herritar taldeko hainbat ordezkariak ere parte hartu zuten oroitzeko ekitaldian. Hain justu ere, Ane Beitia Elgoibarko alkateak hasi zuen inaugurazio ekitaldia. Egia, justizia, eta errekuperazioa aldarrikatu zituen Beitia eta justizia egin gabe egoiteak eragindako mina aintzat hartzerantz deitu zuen.

“Pozik geundeke gaurko omenaldia egin beharrik izango ez bagenu, baina balio dezala honek halako basakeriak berriro gerta ez daitezen”, esan zuen. Era berean, aurrera egiteko, memoria egitea ariketa ezinbestekoa dela nabarmendu zuen.

Ildo beretik mintzatu zen Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakaria ere. “Inoiz ahaztu behar ez zenaren oroimena ari gara berreskuratzen gaur. [...] Orain, egia, justizia eta errekuperazioa premia asetzen laguntzen saiatzen gara. Hau lehentasun etikoa, gizatiarra eta demokratikoa da”. Gerran desagertutakoak “injustizia kriminal baten biktima” izan zirela esan zuen, eta haien senitartekoen urteetan bizitako minaren eta sufrimenduaren ankerra gogorarazi eta “gertutasuna eta elkartasuna” agertu ziren biktimen. Memoria historikoa berreskuratze bidean aurrera egiten jarraitzeko konpromisoa agertu zuen EAeko lehendakariak eta gerran “demokraziaren eta askatasunaren alde” hil zirenei duintasuna itzultzekoa.



Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakaria memoria historikoaren aldeko taldeetakoak agurtzen.

2015. urte amaieran, gerran desagertutako pertsonak topatu eta identifikatzeko euskal plana abiatu zuen Eusko Jaurlaritzak Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean eta Urkulluk esan zuen horren barruan lan-plana ere antolatu dutela 2010. urtera artekoa. Plan horretan, hobiak egon daitezkeen lekuetan ikertzea jaso dute, eta horrekin segida eman nahi diote 2002. urtean gorpuak lurpetik ateratzeko hasitako prozesuari. "Isiltasun eta iluntasun garaia amaitu da", esan zuen Urkulluk.

Adierazpenen txanden ondotik, gorpuzkinak hobiratzeari ekin zioten. Bi-hiru laguneren artean eraman zituzten 27 kutxetako bakoitza hobira. Josu Arraiz Elgoibarko alkateordeak eta Maialen Gurrutxaga legebiltzarkideak (EAJ) hasi zuten hobiratzea, eta atzetik joan ziren gainerako guztiak: memoriaren aldeko elkarteetako ordezkariak, tokian tokiko udal ordezkariak eta hildakoen etxeak parte hartu zuten ekitaldi xume



Sabino Atutxa gudariaren gorpuzkinak hobiratzeo uea.

horretan. Tartean, baita Elgoibar 1936 taldekoek ere. Hain justu ere, talde horretako Iñaki Odriozola, Hodei Otegi eta Felix Etxeberria *Parapanek* hobiratu zuten Zirardamenin hildako gudarietako baten gorpuzkinak. 27 gorpuk betiko atsedenekuan utzi ondoren, lore eskaintza egin zuten guztiek kolonbarioaren albo batera jarri duten Duintasunaren eskulturaren oinetan.

Elgoibar 1936 taldea

Ekitaldi "justua, polita eta hunkigarria" izan zela baloratu zuten Elgoibar 1936 taldeko Iñaki Odriozola eta Hodei Otegi hilerrian bertan BARRENI egindako adierazpenetan. "Oso polita, bereziki honek esan nahi badu Eusko Jaurlaritzak gehiago inplikatu dela hemendik aurrera. Eta ematen du baietz. Konpromiso hori agertu dute, eta badirudi beste kolonbario bat proiektatzen ere hasi direla Artxanda inguruan", esan zuen Odriozolak. Hala ere, memoria historikoa berreskuratzeo ahaleginean "gauza asko" egiteko daudela nabarmendu zuen ondotik Hodei Otegi. "Nahiko genukeena eta espero duguna da memoria historikoa egiteko ahalegina ez mugatzea kolonbarioa egin eta inauguratzea; ez dadila sinbolismo hutsean gelditu.

Badaude ikur asko herrian kendu beharrekoak: hor daude Morkakoko gurutzeta, falangeko ehundik gora plaka...". Memoria egiten jarraitzeo konpromisoa agertu izana eskertu



Felix Etxeberria, Hodei Otegi eta Iñaki Odriozola Iñigo Urkullu lehendakariarekin.

"Espero duguna da memoria historikoa egiteko ahalegina ez mugatzea sinbolismo hutsera"

zioten Jaurlaritzari eta ahalegin horretan aldaketa ere igarri dutela zehaztu zuten. "Egia da Zirardamendiko gorpuk atera genituenetik Jaurlaritzak ari dela instituzionalki gai honi indar handiagoz heltzen. Lehendakariak berak ere esan du isiltasun eta iluntasun aroa amaitu dela. Ia ba egia den".

"Bazen ordua", gehitu zuen Felix Etxeberriak, aldamenetik. "Oraindik asko dago egiteko eta pena daukat ni neu zahartu naizela, baina Aranzadi-koak-eta lan handia ari dira egiten. Oraindik, baina, han daude lurpean bi-hiru gorpu. Gutxi gorabehera badaikit nik non dauden, baina han lan egin behar da".

15,6 milioi euroko udal aurrekontua

Elgoibarko Udaleko osoko bilkurak 2017rako aurrekontua onartu zuen joan zen astean, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta EH-Bilduren kontrako botoekin. Guztira 15.687.516,99 euroko aurrekontua izango du aurten Udalak, iazkoa baino %12 handiagoa.

- AINHOA ANDONEGI -

Elgoibarko Udalak joan zen asteko Osoko Bilkuran onartu zuen 2017rako aurrekontua, EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin. EHBilduk kontra bozkatu zuen. Guztira 15.687.516,99 euroko aurrekontua izango du aurten, iazkoa baino %12 handiagoa. Hazkundera ohikoa baino handiagoa da, eta horren arrazoia bereziki Aita Agirre eraikinaren obra da. 2017an milioi bat euro erabiliko ditu Udalak obra honetan. Elgoibarko Udalak Aita Agirre eraikuntza birgaituko du udalerriko kultura jarduerarekin zerikusia duten hainbat erabilera jasotzeko. Horretarako, 2017ko ekitaldian, 1.000.000 euro inbertituko ditu; eta 2.600.000 euro eta 600.000 euro, 2018 eta 2019an hurrenez hurren. Guztira, hiru urtetan, 4,2 milioi euro erabiliko dira Aita Agirre eraikina eraberritzeko. Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiko diru laguntzak izango ditu, baita Eusko Jaurlaritzakoa ere, besteak beste.

EAJk nabarmendu zuen Elgoibarko Udaleko egoera finantziarioa osasuntsua dela oso, zorrik gabea. Azkenengo datu ekonomiko-finantziarioak kontuan hartuz, Elgoibar Gipuzkoako gainerako udalerrien batezbestekoaren gainetik dago aurrezkiari dagokionez; eta oso azpitik, zorrari dagokionez.

Udalaz gain, beste bi erakunde autonomo kudeatu izan ditu orain arte Elgoibarko Udalak: San Lazaro egoitza eta Udal Kirol patronatua. San Lazaro egoitzak bide berria hasi du Foru Aldundiaren eskutik, eta dagoeneko ez du Udalak kudeatuko. Udal Kirol patronatuak, bestalde, 1.160.537 euroko aurrekontua izango du 2017an, eta horietatik 490.000 euro Udaletik jasoko ditu. Udalaren aurrekontu horretatik bideratuko diren lanik aipagarrien artean Mintxetako futbol zelaia berritzea izango da. 230.000 euro erabiliko dira Mintxetako berdeguneko belarra berritzeko.

KONPARAKETA

2017 Hasierako aurrekontua	2016 Hasierako aurrekontua	2015 Hasierako aurrekontua
15.687.516,99	13.999.822,21	13.682.562,85

2017KO UDAL AURREKONTUAREN LABURPENA

• **Elgoibarko Udal aurrekontua: 15.687.516,99 euro**

- **San Lazaro: San Lazaro egoitza dagoeneko ez da Elgoibarko Udalaren erakunde autonomoa. Aurrerantzean, beraz, Foru Aldundiak kudeatuko du.**

- **Kirol Patronatua: 1.160.537 euro (Udalak 490.000 euro emango dizkio).**

SARRERAK.....

Zuzeneko zergak	3.387.374,44
Zeharkako zergak	250.000,00
Tasak eta bestelako sarrerak	2.473.570,66
Transferentzia arruntak	7.744.161,41
Ondarezko sarrerak	12.500,00
Inbertsio errealak inorenganatzeara	365.000,00
Kapital transferentziak	521.290,48
Aktibo finantzarioak	3.000,00
Pasibo finantzarioak	930.620,00

Sarrerak guztira 15.687.516,99

GASTUAK.....

Pertsonal gastua	3.966.438,17
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	6.575.439,45
Gastu finantzarioak	2.150,00
Transferentzia arruntak	188.289,37
Inbertsio errealak	12.919.200,00
Aktibo finantzarioak	8.000,00
Pasibo finantzarioak	28.000,00

Gastuak guztira 15.687.516,99


Elgoibarko Udalak 2.919.000 euro erabiliko ditu inbertsioetarako, eta hauek dira urte honetan egin asmo dituzten lanik esanguratsuenak:

2017ko INBERTSIO NAGUSIAK

Aita Agirre	1.000.000	Urazandiko argiteria LED sistemara aldatzeko	60.000
Juan Mugertza kalea	230.000	Urazandiko etxebizitzaren irisgarritasuna	50.000
Mintxetako futbol zelaia	230.000	Jausoroko barandilak aldatzeko	30.000
Santa Klarako komentua erosteko (1. ordainketa)	200.000	Urazandiko haur eskolako teilatua aldatzeko	20.000
Herri Eskolako leiho eta pertsianak	140.000	Auzoak	180.000
Musika taldeentzako lokalak Pedro Mugurutzan	120.000	Parkeak eta lorategiak	50.000
Zizilion poligonoko aparkalekuak	80.000	Proiektuak idatzeko	180.000
Artetxeko gizarte zerbitzuetako etxea konpontzeko	65.000	Ohiko etxebizitzaren alokairua sustatzeko	50.000

2017ko AURREKONTUAK, SAILKA

	2017	2016
BARNE SAILA (Gobernu organoak, administrazio orokorra, segurtasun Saila, Ekonomia eta Formakuntza)	4.366.784,55	4.239.294,98
KULTURA (Hezkuntza, Kultura, Liburutegia, Euskara)	1.938.207,29	1.861.978,76
GIZARTE SAILA (Gizarte ekintzak, Jubilatutak, Kontsumo Bulegoa)	1.213.285,92	1.097.915,93
HIRIGINTZA SAILA (Hirigintza, Hondakinen kudeaketa eta kale garbiketa, bide publikoak, nekazal garapena eta hilerria)	7.167.707,97	5.868.565,06
OGASUN SAILA (Zor publikoa, ekonomia kudeaketa)	557.143,50	563.238,72
GAZTERIA	389.887,76	317.328,76
BERDINTASUN SAILA	54.500,00	51.500,00





Legealdi Planean oinarritutako aurrekontuak

2017ko aurrekontua berriki osatu berri den Legealdi Planean oinarrituta dago, non arlo bakoitzeko helburuak eta lehen-tasunak ezarrita dauden, gobernua- ren bide-orria zehaztuz, Udalaren baliabi- deak lehen-tasuneko helburuen arabera arrazionalizatuz.

“Elgoibartar guztion ongizatea dugu ardatz”

Aipamen berezia merezi du Aita Agirre proiektuak, kultur ekipamendu berri bat Elgoibarko erdigunean, bertako zerbitzu publiko eta eragile guztien artean siner- giak, ekimen bateratuak, sareak eta impli- kazioak partekatuz. Elgoibarko agenda kulturalari bultzada bat ematea izango dute xede, parte-hartze prozesuan egin bezala elkarte guztiak gonbidatuz. Hala ere, kultur eskaintza Kultur Etxean eta Pedro Mugurutzako eskoletan ere koka- tuko da, eragile publiko eta pribatu guz- tien artean Elgoibarko kultur eskaintza eta sorkuntza egitasmo bateratu batean inte- gratuz.

Gobernu talde honen lerro estrategiko- enetarikoa sustapen ekonomikoa da. Hel- buru honetarako Udala etengabe ari da lanean kalitatezko enplegua sustatuz, for- makuntzaren munduarekin lankidetzan, jarduera ekonomikoz guztiei lagunduz, eta industriari eta bereziki makina erremintari arreta berezia eskainiz.

Gizarte zerbitzuetara bideratzen diren baliabideak bermatuta daude, elgoibartar guztion ongizatea dugu ardatz.

Kirolean, instalazioei dagokienez, Mintxetako futbol zelaia aldatzeko 230.000 euro bideratu dira, Elgoibar CD mendeurrenarekin bat eginez.

Norabiderik gabeko aurrekontuak

PNV eta PSE-EEk onartu dituzten au- rrekontuak Gobernu taldeak aurkeztu berri duen Legealdi Planean oinarrituta- koak dira. Bai bata eta bai bestea el- goibartarrei bizkarra emanez egin dira.

Eta hori legealdi planean udal ku- deaketa gidatuko duen oinarritzko ba- loreetako bat gardentasuna eta parte-hartzea izango dela esaten dute- nean. Penagarria benetan!

“Elgoibartarrei bizkarra emanez egin dira aurrekontuak eta Legealdi Plana”

Legealdi plana berandu eta herrita- rren parte-hartzerik gabe egiteaz gain, ikuspegi estrategikorik gabeko eginki- zun bilduma da. Honen adibide ar- giena aurrekontuen proiektu izarra den Aita Agirre eraikuntzaren berritzea da.

Bere momentuan adierazi genuen gure poza udal gobernutik bat egin zu- telako guk betidanik defendatu dugun proiektuarekin. Hasieratik adierazi ge- nuen ere 4 milioi euroko inbertsio batek kultur dinamikaren inguruko gogoeta sakona eskatzen zuela kultura arloko etorkizuneko lehen-tasunak adosteko eta kulturak Elgoibarren izan dezakeen era- gin estrategikoa eta sozio-ekonomikoa sendotzeko.

Proposamen honekin batera beste bi aurkeztu genituen. Bata, herriko era- gile sozioekonomikoekin batera disei- natutako enplegu plana eta, bestea, etxebizitzaren alokairua sustatzeko pro- grama. Proposamen horiek ez dituzte aintzakotzat hartu.

Gure helburuak bete dituen aurrekontua

Udal Gobernuak aurrekontuak au- rkeztu zizkigunean sakon begiratu genien, eta sailka aztertu ostean, hau da gure iri- tzia: edukien eta diru kopuruaren aldetik, aurrekontuak ez zeuden gure ikuspegitik oso urrun. Gu izango bagina aurrekotuen prestatzaileak beste ukitutxo batzuk izango zituen, baina baietza ematea era- baki genuen.

Guretzat oso garrantzitsuak dira Gi- zarte Zerbitzuetako edukiak. Oraindik kri- sialditik irten gabe gaude, eta jende asko estu bizi da. Beraz, laguntza behar dute- nei laguntzeko ezin da aurrekontu motza izan. Gero, pertsonen adinaren arabera, Elgoibarko nagusien kopurua gero eta gehiago handituko denez, ahultasunak di- tuztenak babestu egin behar dira.

“Nahiko genuke hurrengo proiektuetan parte hartzeko aukera gehiago ematea”

Beste gai garrantzitsu bat Herri Eskola da, eta ondo iruditzen zaigu 140.000 euro hara bideratzea. Beraz, gure helbu- ruak beteta daude, nahiz eta gure erreser- bekin.

Aita Agirrerren proiektua aurkeztu zigu- tenean kezkatu egin ginen, dena eginga aurkeztu zigutelako eta ez geneukalako aldaketak edo hobekuntzak egiteko auke- rari. Proiektu oso sakona da, eta kultur alorrean Elgoibarren etorkizunean helbu- ruak betetzeko aukera handia eskaintzen du. Gauza bera pasatu zaigu 2015- 2019 legealdi planarekin ere. Gure begi aurrean jarri zuten, eta ez geneukan berriz- teko aukerarik. Portaera horrekin ez gaude ados, eta nahiko genuke hurrengo proiektuetan parte hartzeko aukera ematea.

euskaraz hitz egiteko **Tertuliak**

Tertuliak programa: 45 lagun astean ordubetez euskaraz

Egoibarko Izarrak, AEK euskaltegiak, Udal Euskaltegiak eta Udalak elkarlanean kudeatzen dute *Tertuliak* programa. Euskaraz berba egiteko zailtasunak dituztenei astean ordubetez euskaraz hitz egiteko gune bat eskaintzea da egitasmoaren helburua, eta aurten 45 lagun ari dira parte hartzen, 11 bidelagun eta 34 bidelari. Euskara ikasi edo hobetu nahi dutenak dira bidelariak, eta zeregin horretan laguntzeko kideak dira bidelagunak. Gaurkoan bi bidelagun eta bi bidelari ekarri ditugu gurera.

- AINHOA ANDONEGI -



Susana Mujikaren taldea astean behin batzen da kafe baten bueltan, euskaraz jarduteko.

2001ean jarri zuten martxan *Tertuliak* egitasmoa Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, AEK euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak, *Arigera* egitasmoaren barruan. *Arigera* egitasmoa bertan behera geratu zen gerora, baina eragileek *Tertuliak* programari eustea erabaki zuten, euskaraz hitz egiteko zailtasunak zituztenei astean ordubetez euskaraz mintzatzeko gune bat eskaintzeko. Bidelagun eta bidelariak elkartzen dira talde txikietan euskaraz hitz egiteko. Aurten 45 lagunek dihardute egitasmoan parte hartzen, 11 bidelagunek eta 34 bidelarik, hain zuzen ere. Bidelagun bakoitzak hiruzpalau bidelari osatutako taldea dauka, eta astean behin biltzen dira ordubetez euskara praktikatzeko. Bidelari gehienak euskaltegian ari dira euskara ikasten, baina euskara ikastea teoritik harago doa, eta ezagutzaz gain, erabilera ere garrantzitsua da hizkuntza bat ikasterako orduan. *Tertuliak* egitasmoak horretan eragiten du bereziki, euskararen erabilera. Bidelarietako askok ingurune erdalduna daukate, eta ez dute inor inguruan euskaraz mintzatzeko. *Tertuliak* egitasmoari esker harreman euskaldunak sortu dituzte, eta euskaraz hitz egiteko lagunak egin dituzte.

Irailetik ekainera irauten du ikasturteak, eta astean ordubeteko konpromisoa eskatzen zaie bidelagun zein bidelariei. Kurtso amaieran kultur ikuskizun bat antolatzen dute, eta ikasturte amaierako afaria egiten dute guztiak batera.

Norbaitek bidelagun edo bidelari izateko interesa izango balu, Elgoibarko Izarran (943 741 626) edo Elgoibarko bi euskaltegietan (AEK: 607 601 423 / Udal euskaltegia: 943 742 731) eman dezake izena.

2016-2017 IKASTURTEKO TALDEAK

- | | |
|-------------|-----------------------------------|
| 1. TALDEA: | 1. Jesus Mari Makazaga |
| | 2. M ^{re} Karmen Alberdi |
| | 3. Consuelo León |
| | 4. Esther Perez |
| 2. TALDEA: | 5. Ibana Loiola |
| | 6. Mertxe Ros |
| | 7. Gloria Barrutia |
| | 8. Paki Lucha |
| | 9. Nerea Velez |
| 3. TALDEA: | 10. Jose Antonio Gomez |
| | 11. Carmelo Menezo |
| | 12. Julen Iriondo |
| | 13. Jose Felix Telleria |
| 4. TALDEA: | 14. Ane Goikoetxea |
| | 15. Pili Freitas |
| | 16. Estibaliz Aranegi |
| | 17. Rebeca Esteban |
| 5. TALDEA: | 18. Gloria Bollar |
| | 19. Maribel Vázquez |
| | 20. Mari Fran Unzueta |
| | 21. Flori Ortiz de Villalba |
| | 22. Loli Iglesias |
| | 23. Nieves Prado |
| | 24. Luisa Gomez Garrido |
| 6. TALDEA: | 25. Juan Karlos Marcos |
| | 26. Jose Esnaola |
| | 27. Luis Zaldúa |
| | 28. Luis Azkue Fotero |
| 7. TALDEA: | 29. Susana Mujika |
| | 30. Kontxi Prieto |
| | 31. Mila Dacosta |
| | 32. Isabel Segundo |
| 8. TALDEA: | 33. Arantza Apraiz |
| | 34. Esperanza Romero |
| | 35. Esther de Torres |
| | 36. Manu Zubiaurre |
| 9. TALDEA: | 37. Merche Lopez |
| | 38. Aitziber Osoro |
| | 39. Rakel Martinez |
| | 40. Manu Zubiaurre |
| 10. TALDEA: | 41. Begoña Goñi |
| | 42. Itziar Etxabe |
| | 43. Mari Jose Solano |
| | 44. Mari Karmen Arriola |
| | 45. Rosa Dacosta |

Bidelagunak

Juan Carlos Marcos, 49 urte



“Duela bi urte proposatu zidaten *Tertuliak* programako bidelagun izatea, eta interesgarria iruditu zitzaidan. Gainera astean ordubeteko konpromisoa ez da lana, edonork dauka astean ordubete besteei eskaintzeko. Ni ere euskaldun berria naiz, eta niretzako

oso polita da nik jaso nuena orain beste batzuei eskaintzea. Nik urte asko egin nituen AEKn, baina egia da euskaraz hitz egiten kalean ikasi nuela. Jende euskaldunarekin elkartu eta haiekin euskaraz hitz egiten hasi nintzen. Hori da garrantzitsua: ohiturak aldatu eta euskaraz hitz egiteko guneak aurkitzea. Gu kafe bat hartzeko geratzen gara astean behin, eta euskaraz hitz egiten dugu gure gauzei buruz. Nire taldekoak ondo moldatzen dira euskaraz, ez daukate lotsarik eta pila bat hitz egiten dute. Ni gabe ere primeran moldatuko lirateke. Hirutik bi euskaltegian dabilta, eta bestearen emaztea Tertulietako bidelaguna da. Ni ez naiz euskara irakaslea beraiantzat, ez naiz akatsak zuzentzen ibiltzen, horretarako euskaltegiak daude. Guk konfiantza giroan, lasai egiten dugu euskaraz”.

Susana Mujika, 45 urte

“Bigarren urtea da niretzat aurtengoa, eta egia esan sekulako aldea igarri diet nire tertuliakideei. Oso gustura egoten gara, lasai, konfiantza giroan. Ni ez naiz irakaslea, baina saiatzen naiz akatsak zuzentzen eta beraien zalantzak argitzen. Niri ere zuzendu izan dizkidate gauzak nire lanean eta zuzenketa horiek buruan dauzkat, ez zaizkit ahaztu. Baina lasai hitz egiten dute nirekin, badakite hanka sartu arren ez dela ezer pasatzen, inork ez dituela epaituko. Ni entzuteko eta laguntzeko nago. Euskaldun zaharrek askotan ez daukate euskaldun berriekin pazientziarik, eta berehala aldatzen dute gaztelaniara. Pazientzia ezinbestekoa da. Ni ere Tenerifera joan eta ingelesez hitz egiten hasten naizenean kostatu egiten zait pentsatzen dudana nirea ez den beste hizkuntza batean esatea, eta edozein laguntza eskertzen dut. Horregatik esaten diet lasai botatzeko pentsatzen dutena. Inork ez du euskara perfektua hitz egiten eta ez daude bi lagun euskara berbera hitz egiten dutenak. Azken batean, elkar ulertzeko tresna da euskara eta bakoitzak berea dauka. Egunerokoan moldatzeko gaitasuna izatea da garrantzitsua. *Tertuliak* egitasmoa oso ondo dago, eta astean ordubete denok daukagu. Niretzako ez da lana, lagunartean kafetxo bat hartzea baino ez da”.

Bidelariak

Jose Esnaola, 63 urte



“Orain dela bi urte hasi nintzen tertulietan. Hiru urte dira AEKn izena eman nuela, baina berehala konturatu nintzen euskaltegiara joatea ez zela nahikoa euskara ikasteko. Gustatzen zait AEK-ko metodologia, baina gehiago hitz egiteko

beharra neukan. Horrela hasi nintzen, eta oso gustura nago. Izugarri lagundu dit lotsa galdu eta euskaraz egiten, harreman ona daukagu taldean eta euskaraz hitz egiteko espazioa daukagu. Juan Carlos Marcos da gure bidelaguna, eta dagoeneko, gure laguna dela esan dezakegu. Astean ordubeteko konpromisoa daukagu *Tertuliak* egitasmoan, baina askotan bi ordu egoten gara hizketan, eta berehala pasatzen zaigu denbora. Denetik hitz egiten dugu. Nire buruari esan nion jubiltzen nintzenean euskara ikasi behar nuela eta horretan nabil. Nire gurasoak euskaldunak ziren, baina euskara debekatuta egon zen garaian ez ziguten euskaraz egiten. Ni, gainera, 14 urterekin kanpora joan nintzen ikastera, eta euskara galdu nuen. Nire belaunaldiko jende gehienak galdu egin zuen euskara. Nik euskara berreskuratu nahi dut, eta lortuko dut. Euskaraz bizi nahi dut, gure hizkuntza delako. Euskaraz dakitenek gaztelaniaz hitz egitea ez dut ulertzen; hori pekatua da”.

Pili Freitas, 51 urte



“Udal Euskaltegian hasi nintzen euskara ikasten, eta han nenbilela eman zidaten *Tertuliak* egitasmoaren berri. Izena eman nuen, eta dagoeneko izango dira 10 bat urte! Oso gustura nabil. Lehen eta bigarren perfila atera nituen, eta EGA ateratzeko taldean eman nuen izena, baina han euskaldun zahar

asko zeuden, maila altuegia zuen taldeak niretzat eta utzi egin nuen. Baina tertuliekin jarraitu egin nuen. Teoria nahiko ondo menperatuta neukan, euskaltegian ariketak erraz egiten nituen baina buruan neukana ahoz esatea asko kostatzen zitzaidan. Euskaraz hitz egitea kostatzen zitzaidan bereziki, eta tertuliei esker asko hobetu dut horretan. Harreman berriak egin ditut, eta jende horrekin kalean topo egiten dudanean euskaraz egiten dut. Guretzako ohitura bilakatu da euskaraz egitea, eta azkenean hori da garrantzitsua; ohiturak aldatzea. Nik sekula ez dut lotsarik izan, baina egia da jendeari beldurra ematen diola akatsak egitea. Tertuliak talde txikietan egiten direnez erraza izaten da hitz egitea. Denek izaten dugu hitz egiteko aukera, eta jendeak beldur gabe hitz egiten du. Euskaraz ikasten ari diren guztiak animatuko nituzke *Tertuliak* programan parte hartzera”.

Gipuzkoako bertsolari txapelketan parte hartuko du Iñigo Zubiaurre mendaroarrak

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak larunbatean aurkeztu zuen Herriarteko Txapelketa Azpeitian. Aurten 38 taldek hartuko dute parte, 270 parte hartzaile inguru, bertsolari, gai-jartzaile, epaile eta antolatzaileen artean. Mutriku, Deba eta Mendarotik Arnope taldea sortu da, eta kideen artean Abel Irizar elgoibartarra eta Iñigo Zubiaurre 'Beitxi' mendaroarra daude. Iñigo Zubiaurrek bertsotan jardungo du, eta Abel Irizar taldearen ordezkaria izango da. Lehenengo fasea gaurtik martxoaren 12ra bitartean jokatu dute, eta gure ordezkariak otsailaren 17an eta martxoaren 4an jokatu dituzte lehenengo kanporaketako saiok, Billabonan eta Mutriku. Bigarren faseko 12 talde sailkatuko dira. Finalerdiak maiatzaren 6an eta 13an jokatu dituzte Alegian eta Bergaran hurrenez hurren, eta final nagusia maiatzaren 27an egingo dute, Azpeitian.



Ateak irekitzeko eguna bihar Herri Eskolan

Elgoibarko Herri Eskolak ateak irekitzeko eguna ospatuko du bihar. Umeen-tzako jolasak eta tailerrak egongo dira, eta horrez gain, ikastetxea zabalik egongo da instalazioak ikusi nahi dituenarentzat. 11:00etatik aurrera izango da.

Otsailaren 12an estreinatuko dute CD Elgoibarren martxa

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du otsailaren 12an Herriko Antzokian, eta saio horretan CD Elgoibarren mendeurrenaren harira prestatu duten martxa estreinatuko dute. German Meabebas-terretxeak idatzi du letra, eta Txomin Mujikak musika bandarentzat egokitu du. Ekitaldian Kale Kantariak eta Parrokiako Abesbatzak ere hartuko dute parte. Kontzertua baliatuko du CD Elgoibarrek Ricardo Garate zenari omenaldia egiteko.

Uxue Alberdik Maialen Lujanbio elkarrizketatuko du martxoaren 1ean



Maialen Lujanbioren eta Uxue Alberdiren arteko elkarrizketa antolatu du Elgoibarko Izarrak, Udalaren lankidetzarekin, *Euskaratik eta euskaraz, herri hau sortzen*, izenburupean. Elgoibarko Udalaren kultur agendan otsailaren 8an izango dela azaldu bada ere, martxoaren 1ean izango da azkenean, otsailaren 8an bakeari eta bizikidetzari lotutako mahai inguru ere badagoelako. Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan, 19:00etan hasita.

Mugertza Krosari buruzko marrazki erakusketa

Mugertza krosari buruzko marrazki lehiaketa antolatu zuten Mintxeta atletismo taldeak eta Udalak, eta 6-12 urte bitarteko 585 umek hartu zuten parte. Lanak kuskai daude Olaizaga Kirolegian otsailaren 28ra arte.

Bihar irtengo dira santa eskeko koruak

Ohitura zaharrari eutsiz, koplakantari irtengo dira bihar santa eskeko taldeak, Elgoibarren eta Mendaron. Etxegiña taldea herriko kale eta auzoetan ibiliko da, eta Elgoibarko Izarrako lagunak berriz, baserri baserri ibiliko dira Elgoibarren. Mendaron hiru taldetan banatuta koplakantuko dituzte herriguneko kale eta auzoak, eta baserriak. 8:30ean batuko dira Mendaroko udaletxe aurrean.


Hiru elgoibartar izango ditu aurten Eibartrans-Gobike txirrindulari taldeak



Master mailako lasterketetan arituko den Eibartrans-Gobike txirrindulari taldea aurkeztu zuten Elgoibarren, joan den asteburuan. Babesle berriak ditu aurten eta txirrindulari elgoibartar bat gehiago ere bai, Ramon Garcinari eta Iban Gonzalezi Iñigo Lariz batu baitzaie. Taldearen helburua Euskal Herriko Master mailako lasterketen egutegia osatzea izango da, baina Eskal Herriko mugetatik kanpo jokatzen diren proba esanguratsuenetan ere hartuko dute parte. Denboraldia bi aste barru hasiko bada ere, iaz emaitzarik onenak lortu zituen Ramon Garciak ezin izango du lehiatzen hasi, entrenatzen ari zela erorikoa izan baitzuen Eibarko Azitaineko biribilgunean eta min hartu baitzuen sorbaldan. Gutxienez bost aste beharko ditu osatzeko.

Nerea Sasiain eta Martin Hernandez Gipuzkoako txapelkun atletismoan

Mintxeta Atletismo Taldeko Nerea Sasiain eta Martin Hernandez saltakariak 400 metroko probak irabazi zituzten pista estaliko Gipuzkoako atletismo txapelketan, jubenil mailan. Gainera, Espainiako txapelketa -Sabadellen, martxoan-jokatze gutxienerako markak eskuratu zituzten, 59 segundo eta 76 ehuneko denbora egin zuen Sasiainek eta 52.26 Hernandezek.



Elgoibartarrak Mendaroko Gaintxipixa mendian

Mendaroko Gaintxipixa mendira irteera antolatu zuen Morkaiko mendi taldeak Elgoibar Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin elkarlanean. 37 ume eta beste horrenbeste gurasok hartu zuten parte irteeran. Treenan joan ziren Mendaroraino, eta Garagartza auzotik gora hasi ziren oinez, Alkortarantz. Prisa handirik gabe Leizarpe gaineraino ailegatu zirela azaldu dute Morkaikotik, eta handik zuzenean Gaintxipixa gaineraino iritsi zirela. Hurrengo mendi irteera otsailaren 19an izango da Xoxotera.



Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 1 – Aretxabaleta 1 (Oho. erreg.)
Elgoibar 1 – Oiartzun 1 (1. erreg.)
Elgoibar 4 – Aloña Mendi 1 (Oho. jub.)
Bergara 2 – Elgoibar 0 (1. mailako jub.)
Aretxabaleta 2 – Elgoibar 0 (Oho. kad.)
Zestoa A 2 – Elgoibar 1 (1. mailako inf.)
Elgoibar 3 – Oiartzun 2 (Infantil Txiki)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 6 – Inter Intxaurren 1 (Nazional B)

SASKIBALOAIA

Viento Sur Elgoibar 73 – Zarautz ZAST 38

ESKUBALOAIA

Askartza 22 – Alcorta F.G. 32 (Senior giz.)
Lauko 20 – Jarrilleras 25 (Senior emak.)
Ereintza 26 – Salento 21 (Senior giz.)
Eibar 25 – Beristain 18 (Jub. mut.)
Tecnifuelle 18 – Zuazo 27 (Jub. nsk.)
Leizaran 23 – Deca 27 (Jub. mt.)
Eibar 34 – Urkunde 39 (Kad. mut.)
Trapaia 25 – Dario 16 (Kad nesk.)
Cometel 20 – Leizaran 20 (Kad. nesk.)
Pulpo 24 – Bankoa 19 (Kad. mut.)
Zarautz A 29 – Murgil 10 (Inf. mut.)
Murgil 29 – Bergara 12 (Inf. mut.)
Urnieta 27 – Pneumax 14 (Inf. nesk.)
Modeltek 23 – Usurbil B 17 (Inf. nesk.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 4
10:00 Elgoibar – Urki (Inf. 1. maila)
11:30 Elgoibar – Ilintxa (Oho. kad.)
16:00 Elgoibar – Mondragon (Jub. 1. maila.)

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 4
10:00 Pneumax – Aiala B (Inf. nesk.)
11:15 Txarriduna – Usurbil (Inf. mut.)
17:30 Salento – Egia (Senior giz.)
19:30 Alcorta F.G. – Romo (Senior giz.)

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari lan-guntzaile lanetan aritzeko prest nago.
☎ 636 882 838

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna ere bai.
☎ 649 044 223

Adinekoak nahiz umeak zaintzen edota etxeak, lokalak edo beste edozein gune garbitzen egingo nuke lan. Orduka nahiz lanaldi osoz.
☎ 631 679 091

Adinekoak zaindu edo sukaldari lanak egiteko prest nago. Ordu-tegi malgua.
☎ 657 773 138 (Julia)

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 688 861 654

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 631 271 595

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 664 225 040

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 653 156 403

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 612 218 594

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 632 737 903

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut. ☎ 631 785 554

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Interna egoteko prest.
☎ 604 164 719

Etxeak eta portalak garbituko nituzke. El-goibartarra eta euskalduna naiz.
☎ 649 782 967

Nagusiak edota umeak zaintzeko eta etxe lanak egiteko prest nago. Orduka lan egiteko prest. Esperientzia eta gidabaimenarekin.
☎ 616 348 918

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka ere bai. Esperientzia handia eta formakuntza ditut. ☎ 602 161 496

Etxe lanak egiteko edo adinekoak nahiz umeak zaintzeko prest nago. Sukalde laguntzaile gisa ere lan egingo nuke. ☎ 602 047 812

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka ere bai.
☎ 600 319 516

Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 651 156 456

Orduka lan egiteko prest nago: garbiketa lanetan nahiz adinekoak zaintzen.
☎ 602 490 595

Nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago.
☎ 631 185 896

Etxe lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna moduan.
☎ 631 552 986

Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet DBH, Batxilergo edota unibertsitateko ikasleei. Matematikan lizentziatua.
☎ 667 625 233

Informatika eskolak ematen ditut.
☎ 680 944 294

GARAJEAK.....

Garaje handi eta itxia alokatzen da Urazandin. Ate automatikoa dauka, eta kallean bertan dago.
☎ 661 151 803

Garaje marraduna salgai San Roken (Pista Beltzaren azpian).
☎ 670 654 820

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 622 162 798

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Bi edo hiru logelakoa.
☎ 602 490 595

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 688 723 121

BESTELAKOAK.....

Zubi Ondo elkarteko bazkidetza kuota saltzen dut.
☎ 628 253 046

Goiko Errota elkarteak bazkide berriak behar ditu.
☎ 626 797 027 (Julen)



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Etxe jabeetako batek komunitatearen kontrako salaketa jarri du gurean. Zehazki, 4.000 euro eskatu ditu ur ihes batengatik. Epaiketa egin da, eta behin-betiko epaia ere eman du epaileak: eskatutako kalte-ordaina ematera behartu du komunitatea. Batzarrean ezohiko derrama bat jartzea adostu dugu gastu horri aurre egiteko. Jakin nahiko nuke epaia irabazi eta kalte-ordaina eskatu duen horri ere badagokion derrama hori ordaintzea, edo salbu dagoen gastu hori ordaintzetik.

Kaltetutako bizilagun horrek ez dauka epaiketa gastuak ordaindu beharrik, ez abokatuaren gastua eta ezta prokuradorearena ere, baina horrek ez du beste gastuak ordaintzetik libre uzten. Beraz, bizilagun horrek ere ordaindu beharko du ezohiko derrama horretan dagokion partea -Partaide-kuotaren arabera zehaztuko da zenbatekoa-.

Abokatuaren eta prokuradorearen gastuak komunitateak hartu beharko ditu bere gain, auzi judizialak eragindako gastuak ez direlako gastu orokortzat hartzen. Aldiz, epaian ezarritako gainerako gastu edo ezohiko derramak bai kontsidera daitezke gastu orokor, eta beraz, horietan parte hartu beharko du kaltetutako etxe-jabe horrek ere.

AHOLKUA: Epaian ez bada espreski esaten kaltetuak ardurarik ez duela auzi horretan eta horrenbestez kalte-ordaina ordaintzetik libre dagoela, gainerako etxe-jabeek bezalaxe ordaindu beharko du berak ere dagokion parte.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Regio de Colegios de Administradores de Justicia
Colegio de Abogados de Vizcaya
Colegio de Abogados de Cantabria



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Pox-polintxo**, igandean 2 urte bete eta elkarrekin ospatuko ditugulako. Bi belarri tirakada eta muxu bat denon partez.




Zorionak, **June**, 4 urte bete dituzulako. Muxu handi bat aita, ama eta Enaitzen partez.



Zorionak, **Paul!** Gaur 3 urte! Exeko-koen eta bereziki Alexen partez, muxu potolo bat.



Zorionak, **Markel**, aitaita, amama eta Josebaren partez.



Zorionak, **Bryan** zure hamargarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiako guztien partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

ZURE OSASUN-IKUSMENA GARRANTZITSUA DELAKO
Eskatu ordua eta saihestu arazoak

Kataraktak, Ikusmen nekatua, Begi lehorrak, DMAE, Entzulekotasun arazoak

Zure ikusmena zaintzen dugu

Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 687 953 698
www.fisio-mas.com

Mari Jose Ruiz Porres
Doktorea
GINEKOLOGOA

R.P.S. 82/15
Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 beheak
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Jeku eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

3 BARIKAKUA

10:15 Mendaro Ikastolako LH5 eta LH6ko ikasleak santa eskean irtengo dira.

12:00 Mendaro Ikastolako ikasle guztiak Mendarozabalen batuko dira eta Santa Agedaren omenezko koplak abestuko dituzte.

15:15 Santa Agedaren omenezko kalejira. Elgoibar Ikastolak antolatuta. (Euria egingo balu, Ikastolan bertan).

18:00 Ingeleseko mintzapraktika taldearen solasaldia. Udal Liburutegian.

21:30 Zine foruma. *Shirley Valentine* filma aztertuko dute Kultur Etxean. Haizeak antolatuta. Kafea hartuko dute lehenengo eta 22:00etan hasiko da filma.

4 ZAPATUA

8:30 Mendaroko santa eskeko taldea koplakantuan irtengo da. Udaletxe azpian batuko dira.

9:00 Santa Eskea herriko kale eta auzoetan. Etxegiña taldeak antolatuta. Bolatokian batuko dira.

10:00 Santa Eskea baserriz baserri, Elgoibarko Izarrak antolatuta. Kalegoen plazan.

11:00 Herri Eskolako ate irekien eguna. Herri Eskolan.

5 DOMEKA

18:00 Katueder taldearen bilera, Derry tabernan.

8 EGUAZTENA

19:00 Bakea eta bizikidetzaren jardunaldia. Bizikidetzaren berriaren erronkak mahaingurua, Gorka Landaburu, Jurdan Arretxe eta Martin Garitano kazetariekin. Musika Eskolako auditorioan.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

3 Barixakua BARRENEXEA

4 Zapatua IBAÑEZ

Goizez, BARRENEXEA

5 Domeka IBAÑEZ

6 Astelehena GARITAONANDIA

7 Martitzena ETXEBERRIA

8 Eguaztena FERNANDEZ*

9 Eguena YUDEGO

10 Barixakua ORUESAGASTI

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik: BARRENEXEA (Elgoibar) Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)

San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

ZEINTZUK DIRA KREDITU KONTU BATEN EZAUGARRIAK?

Kreditu kontua komertzioek, negozio txikiak (enpresa handiek ere) eta autonomoek erabiltzen duten banku produktua da. Kontu korronte baten antzera funtzionatzen du, hau da, bertan, ordainketak eta diru sarrerak izan ditzaitekegu. Ezaugarri adierazgarrienak honako hauek dira:

- Likidezia tentsio puntualak sortzen direnean edo sortu daitezkeenean erabiltzen den produktua da.

- Ordainketak diru sarrekar baino lehen egin behar direnean, hutsune hori estaltzeko erabiltzen da (ordainketa eta diru sarreren arteko desfasea).

- Kopuru jakin batera arte saldoa negatiboan uzteko baimena ematen duen kontu korronte moduan definitu dezakegu.

- Interesak finkatzen den muga horren barruan egiten den erabilerara mugatzen dira, hau da, 15.000 euroko kreditu kontu baten 5.000 euro erabiltzen badira, interesak 5.000 euro horien gainean ordainduko dira.

Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikoa honetara: galderak@bankoa.es



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



MEKANOSA
 Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Zinea (Herriko Antzokian)

'Comanchería'

3 barixakua: 21:30
4 zapatua: 19:00 / 22:15
5 domeka: 19:00
6 astelehena: 21:30



'Canta'

5 domeka: 16:30

'Después de la tormenta' (Ongarri zinekluba)

9 eguena: 21:30



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Jose Luis Astigarraga Lizarralde

Yurimaguaseko (Peru) gotzaina



2017ko urtarrilaren 20an hil zen, 76 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta haren omenez egindako mezara agertu izana ere.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Iñigo Lamelas



Jose Luis Azpillaga




Beti kostatu izan zaizu erabakiak hartzea. Zalantzati ibiltzen zara, erabaki ezinik. Zer egin? Nondik jo? Urratsa eman ala ez? Zirt edo zart egin behar, eta ezin. Blokeatuta, trabatuta sentitzen zara. Adiskideek eta eza-gunek lagundu nahi izaten dizute, baina zuk kanpoan bilatzen dituzu erabakia hartzen lagunduko dizuten seinaleak: gauzetan, animalietan, naturan.... Zerura edo mendira begiratu eta arrasto edo zantzuren baten zain geratzen zara.

Orain ere hilabeteak dira duda-mudatan zabiltzala. Barruan duzun zalantzak erraiak jaten dizkizu; ezin burutik kendu itotzen zaituen kezka. Denek esaten dizute garaia dela eta emateko pausua. Baina zuk ezin erabaki!

Hargatik, gaur, urtegi ertzeraingo etorri eta zerura begira zaudelarik, garbi ikusi duzu: ilunabarraren ederrak egunaren bukaera seinalatzen du eta egun berria iragarri: ez ote du horrek argi adierazten zuen arteko harremana bukatu dela eta beste bati ekin behar diozula? Urtegiak ur gutxi duela ematen du: ez ote du horrek argiro erakusten zuen arteko harremana agortze dagoela, eta hornigai berriz elikatu behar duzula zure bizitza? Eta batez ere zeruan ageri diren hegazkin-lorraz horiek ez al dute garbiro esaten, elkarrekin bide luzea egin ondoren, norabide ezberdinak hartu behar dituzuela? Bai, argi eta garbi ikusten duzu orain: auto berria erosteko garaia iritsi zaizu! Eta pisu handi bat kenduta, etxera abiatu zara, arinduta, naturak emandako zantzuei esker oneko irribarrez begiratuz.

“Barruan duzun zalantzak erraiak jaten dizkizu; ezin burutik kendu itotzen zaituen kezka”



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



II. URTEURRENA

Justina Santos Santos

2015eko otsailaren 6an hil zen, 88 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak



III. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela. Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 4, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Laster arte ezpainetan,
utzi gaituzu penetan,
orain gure ametsetan,
bizirik zaude benetan,
zeruko izarretan.***

Zure familia



III. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

***Behar dugunetan ezin gara babestu zure besoetan,
baina badakigu hor zaudela ezkutatuta gure bihotzetan.
Zure irribarrea gogoan, ezin ahaztu eta ezin ikutu.
Zergatik ez zauden gurekin, ezin dugu jasan, ezin dugu ulertu.***

Maite zaitugu

Azkoiti-Elgoibarko lagunak



IKASTOLA EREDUA

www.elgoibarikastola.eus

HEZKUNTZA ERALDATZEN



elgoibar ikastola

Aurre-matrikulazioa:
urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era

elgoibar@elgoibarikastola.eus
943 74 44 41